

ADINDU ETA EZINDUEN EROSKETAK EGITEKO ZERBITZUA

*Getariako Udala, Janari Dendariak eta "Covi-19 Boluntario Taldeak" adostutako
Erosketa eta Segurtasun Prozedurak*

Zerbitzuaren funtzionamenduaren protokoloa

Covi-19 birusaren aurrean hainbat kolektibo zaugarria direla kontutan hartuta, horiek etxean egotearen garrantzia bereziki nabarmendu dute erakunde eta instituzioek. Hori dela eta Getariako "Covi-19 Boluntario Taldeak", Janari Dendariak eta Udalak zerbitzu hau eskaintzea adostu dute.

1. Nork erabili lezake zerbitzu hau? adinduak, gaixotasun kronikoa eta aniztasun funtzionala duten pertsonak, eta oro har, erosketak egiteko ezinduta daudenak.
2. Zerbitzua erabili nahi duenak **688 640 682 telefonora deituko du**. Koordinatzaileak zerbitzuaren inguruko informazioa emango dio eta laster bere auzokide boluntario batek telefonoz deituko diola esango dio.
3. Auzokide **boluntarioak deituko dio**, nor den azalduko dio, zerbitzuaren xehetasunak azaldu eta **behar dituen produktuen zerrenda** (elikagaiak, sendagaiak...) hartuko dio.
4. Erosketak egitean erabiltzailearen atarira joango da boluntarioa, eta bertan dagoela, erabiltzaileari telefonoz deituko dio. Erabiltzaileak portaleko atea irekiko dio, eta **Boluntarioak etxeko atea kanpoan utziko dio erosketa**. Ez da boluntario eta erabiltzailearen artean kontakturik egongo.



ADINDU ETA EZINDUEN EROSKETAK EGITEKO ZERBITZUA

5. **Boluntarioa atarian dagoela berriz deituko dio erabiltzaileari, eta esango dio ate aurrean utzi diola beharrezkoa duena.** Gainera, zer moduz dagoen galdetuko dio, eta edozein momentutan behar bereziren bat badu (osasun arazoak edo bestelakoak) berari deitzeko esango dio. Hori gertatuko balitz, boluntarioak Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduraduna erabiltzailearekin harremanetan jarriko luke.
6. Boluntarioak tikea erosketa poltsari gratatuko dio, **zerbitzuaren erabiltzaileak erosketaren kostua zenbatekoa izan den jakin dezan.**
7. **Kutsatzea saihesteko, ez da zueneko kontakturik egongo inolako momentutan (harremana soilik telefonoz egingo da).**
8. Erabiltzailearekin **ordainketa krisi garaia pasatzean** kudeatuko da. Dena pasatzean, erabiltzaileak dendariari zor diona ordaindu beharko dio. Horrela, esku-dirua erabiltzea saihestuko da.

Segurtasun neurrien protokoloa

1. **Boluntarioak baldintza hauek bete beharko ditu:**
 - Sukar, ahulezia, buruko min edota eztularen sintomak ez izatea.
 - Covid-19 izan duen edota harekin kontaktua izanagatik koarentenan dagoen pertsonaren batekin harremanetan ez egon izatea.
 - Arrisku taldeetako pertsonak eta pertsona adinduak ezingo dute parte hartu.
2. **Erosketak egingo dituen pertsonak ez du zerbitzuaren hartzailearen harreman zuzenik izango.**
 - Erosketa egin aurretik eta erosketa egin ostean eskuak garbituko ditu. Erosketak eramán aurretik eta ondoren, urarekin eta xaboiarekin edota alkoholarekin garbituko ditu eskuak.
 - Eusko Jaurlaritzaren gomendioak beteko ditu egunerokotasunean.

Getaria, 2020-03-16an



Getariako Udala